



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
AZAROA-ABENDUA 2024



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



KULTURA, Zizur Nagusia
CULTURA, Zizur Mayor



Jarrai gaitzazu ZizurArten:
www.zizurmayorcultura.es/eu



EGUTEGIA



ANTZERKIA



HAUR
ZINEMA



ZINEMA



MUSIKA



LEHIAKETA



HAUR
ANTZERKIA



DANTZA

AZAROA

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

ABENDUA

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

EGUNA

- 02 **ANTZERKIA** "Tomás. El extraordinario hombre normal" CLOWNIC
- 03 **HAUR ZINEMA** "Momiak"
- 09 **ZINEMA** "Cinco días de otoño" ZINEZIZUR
- 10 **MUSIKA** IV. DONEJAKUE BIDEA ABESBATZA LEHIAKETA
- 15 **LEHIAKETA** ZE ARTISTA 2024
- 16 **ANTZERKIA** "The Shit Show" SIN CORPIÑO
- 22 **MUSIKA** ZABALDIKA LAUKOTEA
- 23 **HAUR ANTZERKIA** "Ostirala iritsi da!" PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE
- 29 **ANTZERKIA** "Sofá y dos cuerpos" DOBLE SENTIDO PRODUCCIONES

EGUNA

- 06 **HAUR ANTZERKIA** "La bruja rechinadientes" KATUA&GALEA TEATRO
- 08 **HAUR ANTZERKIA** "Kelsonia eta itsasoa" GORAKADA
- 13 **ZINEMA + DANTZA** "Itsasmina" DANTZAZ KONPAINIA
- 15 **HAUR ZINEMA** "Kung Fu Panda 4"
- 19 **MUSIKA** "Eguberriko kontzertua" ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA

AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ



ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN

Antolatzaileak:



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



EUZKO FORUAK
Euzko Foruak

Diru-laguntzaileak:

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



Euzko Foruak
Euzko Foruak



PROGRAMA ESTATAL
DE ARTES ESCÉNICAS

L.G. NA-1369-2012. Doako zabalpena.

7A**BILATU PROMOZIOAK!***ZizurArte***12€****ANTZERKIA
BONUA**"The Shit Show"
SIN CORPIÑO
2024/11/16"Sofá y dos cuerpos"
DOBLE SENTIDO
PRODUCCIONES
2024/11/29**8€****HAURRENTZAKO
BONUA**"La bruja
rechinadientes"
KATUA&GALEA
TEATRO
2024/12/06"Kelsonia eta itsasoa"
GORAKADA
2024/12/08**PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!****GAZTE ETA IKASLE****TXARTELAK (12 eta 30 urte****bitartekoentzat):** 4 euroko edo 4 eurotik gorako sarreretan %50eko murrizketa. Ez da aplikatuko haur ikuskizunetan.**Betebeharrak:** NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.**LANGABETUAK:** Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.**Betebeharrak:** NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.**ALDEZ AURREKO
SALMENTA****Urriaren 29ko (asteartea)
09:00etatik aurrera.****1. TXARTELDEGIA**

- Astelehenetik ostiralera
09:00 - 21:00
- Larunbatetan
10:00 - 14:00
17:00 - 21:00
- Igande eta jaiegunetan
12:00 - 14:00
- Ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.

2. INTERNETwww.zizurmayorcultura.es/eu

Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.

Gogoan izan, kosturik gabe**OINARRIZKO
ARAUAK****Puntueltasuna:** Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.**Seinale akustikoak:**

Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.**Dirua itzultzea:** Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.**Haur ikuskizunak:** Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.
- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Larunbata

02



ANTZERKIA

Tomás. El extraordinario hombre normal

CLOWNIC

20:00

10€

70 min



Alokairuko beste etxe batera bizitzera joan berritan, Tomasek lana galdu eta ustekabe sorta batek ederki astinduko du bere bizitza.

Zoritxar hori gorabehera, Tomas ohartuko da badela edertasun izpirik gorderik tragedia txiki bakoitzean, egunerokotasunaren eromen kaotikoan.

Beste plan batzuk egiten ari garen bitartean igarotzen den horixe da bizitza. John Lennonek esandako esaldiak ikuskizunaren ideia laburtzen du, hots, ametsen atzean gabiltzan bitartean, patuak dakartzan ustekabeek erdi-erditik

harrapatzen gaituzte.

Clownicek keinu-ikuskizun komikoa ekarriko du Zizurrera, emozioz beteriko errusiar mendi batean igotakoak.

Normaltasunari darion apartekotasunaren erretratu hunkigarri eta surrealista da. Umorea ardatz harturik jardun eta gero, oraingo honetan Clownicek tragikomedia bati aurre egiteko erronka onartu du, giza izaeraren konplexutasuna umorez eta ironiaz lantzeko.



Igandea

03



HAUR ZINEMA

Euskaraz

Momiak


JUAN JESÚS GARCÍA GALOCHA

18:00

3€

88 min

Momien hirian, inperioaren aginduz, Nefer printzesak Thurtekin ezkondu behar du, gurdien auriga ohi batekin. Ez batak ez besteak ez dute ezkondu nahi, baina jainkoen asmoak ezeztaezinak dira. Thutek erregeraztuna zaindu beharko du ezkontzara arte, baina huraxe lapurtu dutela ohartzean, gizakien mundura joan beharko du egungo Londresen barneratzeko, bai Neferrekin, bai Sekhem haren anaia txikiarekin. Bitartean, gure munduan, Lord



Carnabyk bitxi bat aurkituko du indusketa arkeologiko batean. Aurkikuntza sekulako aukera emanen dio omen handiko arkeologo ospetsua izateko.

Larunbata

09



ZINEMA


Cinco días de otoño

ZINEZIZUR


20:00

2€

52 min



Aspaldian dabil Leire bere buruarekin hitz egin nahian, baina ez du une aproposa aurkitzen. Azkenean, badirudi lortuko duela.



Filma ikusi ondotik, topaketa talde artistikoarekin.

AZAROA

Igandea


10



MUSIKA

IV. Donejakue Bidea Abesbatza Lehiaketa

12:00
4€



Donejakue Bideko abesbatzak ezagutzera emateko lehiaketa hau bi urtez behin egiten da. Laugarren edizio honetan, Altsasuko **Erkudengo Ama Abesbatza**, Irungo **Náyade Abesbatza** eta Agoizko **San Miguel abesbatza** arituko dira. Talde bakoitzak nahi dituen kantuak emanen ditu, bai eta derrigorrezkoa ere: "Pelegria naizela". Bukatzeko, hirurek elkarrekin "Bideko habanera" abestuko dute.

Ostirala

15



LEHIAKETA

Ze Artista 2024

19:00
Sarrera librea

Antolatzailea:

gaztetxea
ZIZUR MAYOR
ZIZUR NAGUSIA *casa de la juventud*



Gazte show talent-lehiaketaren VIII. edizioa da, herriko artistak ezagutzeko eta hainbat arlotan dituzten trebetasun artistikoak gozatzeko: dantza, kantua, imitazioak, umorea...

Larunbata

16



ANTZERKIA

The Shit Show

SIN CORPIÑO

20:00

8€


75 min



Igandea da, 2020ko urtarrilaren 28a. Donna Rotunno, Harvey Weinsteinen abokatuak, Daily Times-eko estudioara joan da, zinema-ekoizlearen sexu abusuen eskandalua azalera atera zuen Megan Twohey kazetariak gonbidaturik. New Yorkeko auzia puripurian dago. Emaizta, orduan, iragarrezina zen.

Dramaturgia da, Twoheyk Rotunnori egindako elkarrizketa polemikotik abiatuta, eta Hollywoodeko handiki ohiari egindako epaiketaren transkripzioaren zatiak entzunda.

Antzezlanak fikzio dokumentala da eta hiru emakumeren gogamenaren barnera bidaiatzeko aukera ematen digu: sexu erasoak akusatutako gizona defenditzen duen abokatuak, zergatiak



25N

Ikuskizunaren ondotik, topaketa talde artistikoarekin.

ulertzen saiatzen den kazetaria, eta salatzaileetako bat. Erdigunean, baimen kontzeptua.

Beste behin ere, biktima jartzen da zalantzan erasotzailearen ordean. Hain zuzen ere, duda une horretan gertatzen da Twoheyren eta Rotunnoren arteko elkarrizketa, epaia atera baino lehentxeago. Zigor-epaia eredu garria izan zen eta Estatu Batuetako sistema judiziala eraldatzen lagundu zuen. Mugarrak, beraz, #MeToo mugimenduan.

Laguntzailea:



COMISIÓN DE IGUALDAD
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR

ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA

Ostirala

22



MUSIKA

Zabaldika Laukotea

PEIO RUIZ HUICI, PEDRO LATASA LÓPEZ,
JULIÁN IRULEGUI CASI ETA JOSETXO GOIA-ARIBE

20:00
6€



Zabaldikan (Nafarroa) kokatua dagoen 650 urteko ezkila batek eman dio izena laukote berezi horri. Hiru ahots dira a capela eta saxo bat.

Cuarteto Zabaldika eite berriko proposamena da, Josetxo Goia-Arabe saxofonistak ideiatua eta

pentasatua, eta musika koralak (musika mota hori argi eta garbi hautsirik) emaitza heterodoxoa eta ezberdina izanen du. Programan badira konposizio profanoak eta erlijiosoak, guztiak ere hunkidura karga handiko baretasun giroan bilduak.

Larunbata

23



HAUR ANTZERKIA

Euskaraz

Ostirala iritsi da!

PORROTX, MARIMOTOTS,
PUPU ETA LORE

16:00 eta 18:30
8€
70 min

Adin gomendatua:
2 urtetik aurrera.

Non: pilotaleku handian



Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertaratutako lagunek Txapas irakaslearekin batera bere azken laneguna igaroko dute, elkarrekin ikasitakoa ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako. Txapasekin beti da ostirala! Jantzi sudur gorria eta zatoz gurekin Txapasen kaxa magikoek gordetzen dituzten sekretuak ezagutzera!



Ostirala

29



ANTZERKIA

Sofá y dos cuerpos

DOBLE SENTIDO PRODUCCIONES

20:00

8€

80 min



Diego eta Bea bikote dira eta konfesioan ari bailiran mintzo dira beren amodio harremanaren uneez.

Bai beren hitzen, bai denboran emandako jauzien bidez, elkarrekin eman duten ibilbidearen unerik onenak eta txarrenak ezagutuko ditugu.

Beraz, une askoren ikusle izanen gara, hots, amodioaren lehen imintzioak, ziurgabetasun miragarritz beteak; zentzumenen eta maitasunaren gorakada, elkar maite duten bi gorputzen lilurak markatua; maitasunaren pixkanakako gainbehera, errutina gupidagabeak eta nekea iristen direnean; eta haustura, topaketa ezinezkoa denean eta komunikazioa eragotzia dagoenean.

ABENDUA

Ostirala

06



HAUR ANTZERKIA
Gaztelaniaz

La bruja rechinadientes

KATUA&GALEA TEATRO

18:00
6€
60 min

Adin
gomendatua:
4 urtetik aurrera



inaem PLATEA PROGRAMA ESTATAL DE ARTES ESCENICAS

Hiru anaia ausartek ez baitiete jaramonik egiten amaren ohartarazpenei, baso ilunean sartu eta sorgin baten etxea topatuko dute. Gure hiru protagonistek beren beldurrei aurre egin beharko diete, ihes egingen badute.

Musika eta abentura biziberrituko dira txotxongilo ikuskizun zirraragarri eta liluragarri honetan, itzalen eta itzal-argien erdian. Soinu-banda zoragarria, gainera, entzungai egonen da ikuskizunaren ondotik, QR bat eskaneatuz.

Igandea

08



HAUR ANTZERKIA
Euskaraz

Kelonia eta itsasoa

GORAKADA

18:00
4€
50 min

Adin
gomendatua:
4 urtetik aurrera



Abesti itxurako istorio bat da, adiskidetasunari eta biziraupenari buruzkoa. Kelonia dortoka ilargirik gabeko gau batez jaioko da, hondartzan. Bere senak argi eta garbi adieraziko dio, itsasora iritsiko bada, jarraitu behar diola izarrek ur gainean egiten duten

islari. Hala ere, hiriko argiek nahastuta, mundu ezezagunean barrena murgilduko da. Istorio xamur eta dibertigarria, zuzeneko musikaren eta objektuen antzerkiaren bidez harilkatua.

Ostirala

13



ZINEMA + DANTZA

Itsasmina


DANTZAZ KONPAINIA

20:00

6€

30 min dokumentala +

30 min dantza



ITSASMINA zinema eta dantza uztartzen dituen esperientzia paregabea da, kostaldeko herri baten eta itsasoaren harremanaz XXI. mendean hausnartzeko. Beñat Gerekek zuzendutako dokumentalaren bidez Getariako itsas sustraiak arakatzeko parada izanen dugu, bai eta nortasun horrek egun duen jarraipenaz gogoeta egiteko aukera ere. Gil Harushen koreografiak itsas bizitzako tradizioak eta

modernotasuna ditu inspirazio iturri, eta dantzariak ederki gidatzen gaituzte marinel herri horretako bizitzaren muina islatzen duen bidaia zirraragarrian barrena. Ikusleok itsasoaren indarra eta bertako jendearen bizitasuna sumatuko ditugu, eta sentitu ere, artea eta bizitza harmonia perfektuan elkar lotzen direnean sortzen den lilura. Baina, iraunen ote du harmonia horrek?



ABENDUA

Igandea

15



HAUR ZINEMA
Gaztelaniaz

Kung Fu Panda 4

MIKE MITCHELL, STEPHANIE STINE

18:00

3€

94 min



Hiru abentura arriskutsuren ondoren, heriotzari desafio eginik eta superbilauak garaiturik, bere kemen paregabearekin eta arte martzialetan duen nagusitasun ikaragarriarekin, Pok, Dragoiaren Gerlariak (Florentino Fernándezen ahotsarekin) patuaren deia jasoko du... arnasa

har dezan. Zehazkiago, Bakearen Haraneko lider espirituala izatea eskaintzen diote. Proposamenak begi-bistako bi arazo dakartzkio. Ez du, ordea, atsedean hartzeko astirik izanzen, Kamaloena izeneko sorgin gaizto eta boteretsu bat topatuko baitu.

Osteguna

19



MUSIKA

Eguberriko kontzertua

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA

20:00

2€



Zizur Nagusiko erretiratuen omenezko kontzertua, Zizur Nagusiko Santa Cruz erretiratuen elkarteari bereziki eskainia.